



Txirrindulari guztiek ezagutu beharreko 17 arau (3)

ÁLEX FRUTOS

13/03/2022

LA VANGUARDIA

Bizikletaz ibiltzeak baditu bere berezitasunak. Txirrindulariek jakin behar dute zirkulazio-kodea eta, gainera, gehien eragiten dieten arauak. Hau da, herri edo hirietako kaleetan edo/eta herri bateko hirigunetik ateratzen direnean errepideetan.

Txirrindulari guztiek ezagutu beharreko arau nagusiak zein diren argi izateko, 17 arau garrantzitsuenak ikusiko ditugu (hauek dira azkenak).

Kaskoa

Hirian derrigorrezkoa da 16 urtetik beherakoentzat, baina guztientzat gomendatzen da. Errepidean, nahitaezkoa da txirrindulari guztientzat homologatutako babes-kaskoa eramatea, hiru kasu hauetan izan ezik: luzaroan igotzean, arrazoi medikoengatik edo bero handiagatik. Kaskoak behar bezala lotuta egon behar du.

Oinezkoentzako pasabideak

Oinezkoen noranzkoan oinezkoentzako pasabide batetik igarotzeko, txirrindulariak oinez joan izan beharko du, bizikleta eskuz bultzatuta zeharkatuko baitu.



Espaloia, ez

Gutziz debekatuta dago espaloian bizikletaz ibiltzea. Bizikletaz bakarrik joan ahal izango da oinezkoekin partekatutako bidegorrietan.

Bazterbidetik

Errepidean, eta halakorik bada, txirrindulariak bazterbidetik ibili behar dira. Tarte luzeetan uzten ahalko dute, betiere baldintzak seguruak badira.

Biratu behar den lekua

Hirietan, logikak pentsarazten du bizikletariak bideen ahalik eta eskuinetara ibili behar dutela, baina hori ez da beti horrela, ezta gutxiago ere. Egin beharreko biraketatik hurbilen dagoen erreitik zirkulatuko du. Gainera, garai batetik bestera, gero eta hiri gehiagotako araudiak adierazten du erdigunean ibili behar dela, eta hiriko hirigintzan lehentasuna ematen zaiela bizikletei galtzaden erdian. Taldean ibiliz gero, ezin izanen dute bi baino gehiagoko lerroetan ibili.

Bazterbidetik

Errepidean, eta halakorik bada, txirrindulariak bazterbidetik ibili behar dira. Tarte luzeetan uzten ahalko dute, betiere baldintzak seguruak badira.

Paraleloko zirkulazioa

Biren ilaratan zirkulatu daiteke, eskuinerantz ahalik eta gehien itsatsita. Hala ere, zirkulatzean ikuspenik ez dagoen lekuetan, ilaran joan beharko dute.